# Xedapen Orokorrak

**JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA**

**4395**

20/2009 DEKRETUA, uztailaren 30ekoa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko Sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen dekretua aldatzen duena.

Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak berregituratu ziren, hain zuzen ere, Jaurlaritzaren programa politikoa garatzen laguntzeko eta bere jardunean eraginkortasun eta arrazionaltasun maila altuena lortzeko.

Dekretu hori onartu zenetik hona igarotako denbora dela-eta, bidezkoa da haren edukian zenbait aldaketa egitea, Administrazio honek eskumenen eta kudeaketaren arloan arrazionaltasunez eta eraginkortasunez jardungo badu. Jaurlaritzaren eginkizun politiko administratiboek bere horretan jarraitu dezaten nahi da, inolako etenik gabe, eta, gainera, orain arte Administrazioak izan duen eraketa eta dekretu honen bidez sortzen dena moldatu nahi dira.

Hona hemen dekretu honek dakartzan aldaketak eta, labur-labur, horien zergatiak:

– Industria eta Berrikuntza Sailaren izena aldatu egingo da, sail horri dagozkion arloak hobeto identifikatze aldera. Horrela, Industria eta Berrikuntza Saila, aurrerantzean, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila izango da.

– «Metereologia»ren jardun-arloa Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren menpe egon da orain arte. Aurrerantzean, berriz, Herrizaingo Sailaren eskumenpean egongo da, lotura handiagoa baitauka sail horren egiteko eta jardun-arloekin.

– Ekonomia eta Ogasun Sailak atxikita dituen eskumen- eta kudeaketa-arloen arrazionaltasuna eta eraginkortasuna hobetzeko, beste bi arlo hartuko ditu bere menpe. Batetik, «prezio-politika» izenekoa, orain arte Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailean egon dena. Bestetik, «kontratazioa»ren arloa: orain arte Justizia eta Herri Administrazio Sailaren menpe egon da eta, hemendik aurrera, berriz ere «ondarea» arloarekin bat eginda egongo da. Ondorioz, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza sortuko da, Ekonomia eta

# Disposiciones Generales

**PRESIDENCIA DEL GOBIERNO**

**4395**

DECRETO 20/2009, de 30 de julio, del Lehendakari, de modificación del Decreto de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

El Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, reestructuró los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco con el fin de facilitar el desarrollo del programa político del Gobierno y de conseguir la máxima eficacia y racionalidad en su acción.

Tras el periodo transcurrido desde su aprobación, resulta pertinente realizar diversas adecuaciones en su contenido dirigidas a conseguir los objetivos de racionalidad y mejora de la eficacia en los ámbitos competenciales y de gestión de esta Administración, de manera que se garantice la continuidad de las tareas político-administrativas del Gobierno sin provocar ninguna interrupción en las mismas y, además, se ordene el tránsito de la organización administrativa anterior a la que se aprueba en el presente Decreto.

Las modificaciones que este Decreto contempla, sistemáticamente expuestas junto a su justificación sucinta, son las siguientes:

– Se modifica la denominación del Departamento de Industria e Innovación para facilitar su identificación con el conjunto de áreas que le son atribuidas. De esta forma, el Departamento de Industria e Innovación pasa a denominarse Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo.

– El área de actuación «meteorología», antes inserta en el Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, pasa a formar parte del ámbito competencial del Departamento de Interior por cuanto que guarda una mayor conexión con el conjunto de funciones y áreas de actuación atribuidas a este último.

– En aras de la búsqueda de la racionalidad y mejora de la eficacia en los ámbitos competenciales y de gestión atribuidos al Departamento de Economía y Hacienda, se incorporan a su ámbito competencial dos nuevas áreas. De un lado, el área de actuación «política de precios», antes inserta en el Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo. De otro, el área de actuación «contratación», antes inserta en el Departamento de Justicia y Administración Pública, recupera su anterior tratamiento unitario con el área

Ogasun Sailaren barruan, Ogasun eta Finantza Sailburuordetzan sartuta.

– Toki Administrazioaren arloan, Jaurlaritzaren jardunean bi eremu desberdin argi bereizi nahi dira. Batetik, indarrean dagoen araudiaren arabera, EAEko Administrazio Orokorrak toki administrazioekiko bete beharreko babes- eta kontrol-egitekoa. Justizia eta Herri Administrazio Sailak jarraituko du egiteko horiek betetzen. Bestetik, Administrazio Orokorraren eta toki administrazioen arteko harreman administratiboez gain, harreman instituzionalak ere indartu nahi dira. Hori dela-eta, Jaurlaritzaren Lehendakaritzak bere gain hartuko du eskumen hori. Hortaz, lehenago aipatutako egiteko administratiboak betetzeko beharrezko diren baliabide material eta giza baliabideak Justizia eta Herri Administrazio Sailaren Auzibide Zuzendaritzari atxikita egongo dira aurrerantzean ere. Toki Araubidearen Zuzendaritza, berriz, Jaurlaritzaren Lehendakaritzan sartuta geratuko da, baina Toki Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritza izena hartuta.

– Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari atxikitako bi arloren izenak – Gizarte Ekonomia eta Gizarteratzearen Sustapena – aldatu egingo dira, gizartean dagokien errealitatearekin hobeto identifikatze aldera. Ildo horretatik, sail horri dagozkion jarduera-arloei beste bat gehituko zaie: «enpresen gizarte erantzukizuna». Horrekin batera, zehaztu egiten da Enplegu-politika izeneko arloan, enplegurako lanbide-heziketaren azpisistema osoa sartu dela, betiere Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak pertsonen bizitza osoko ikaskuntza etengabearen arloan duen eskumenari kalterik egin gabe.

– Izen zuzena emango zaio NEIKER Baltzu Publikoari: Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea, A.B. Instituto Vasco de Investigación y Desarrollo Agrario.

– Justizia eta Herri Administrazio Saileko Araubide Juridikoko Idazkaritzako Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzan integratzen dira ondoko funtzio eta jardun-arloak, zeintzuk burutzen baititu Lan eta Gizarte Gaitako Saileko Kabinetearen Sailburuordetzako Azterlan eta Lege Araubide Zuzendaritzak: elkarte, fundazio eta elkargo profesionalei buruzko erregimen orokorra.

– Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailean sartuko dira: Kabinetearen Zuzendaritza eta Zerbitzu Orokorren Zuzendaritza, biak ere desagertu den Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailekoak.

«patrimonio». Se crea por tanto en el Departamento de Economía y Hacienda la Dirección de Patrimonio y Contratación, que se integra en la Viceconsejería de Hacienda y Finanzas.

– En materia de Administración local se pretende distinguir, con claridad, dos planos de actuación distintos en la acción gubernamental. De una parte, las funciones de tutela y control administrativo que según la normativa vigente corresponden a la Administración general de la CAPV respecto a las Administraciones locales. Esas funciones se seguirán desempeñando desde el Departamento de Justicia y Administración Pública. Por otra parte, se quiere potenciar las relaciones institucionales, no meramente administrativas, entre la Administración General y las Administraciones Locales, por ello esta competencia se ejercitará desde la Presidencia del Gobierno. Como consecuencia, las funciones y medios materiales y personales necesarios para continuar con las tareas administrativas antes descritas se mantendrán en el Departamento de Justicia y Administración Pública, adscritas a su Dirección de lo Contencioso, mientras que la Dirección de Régimen Local se integra, bajo la denominación de Dirección de Relaciones con la Administración Local, en el Departamento de Presidencia.

– Se modifica la terminología de dos de las áreas de actuación atribuidas al Departamento de Empleo y Asuntos Sociales, las relativas a Economía social y Promoción de la inclusión social, para facilitar una mejor identificación con la realidad social que ha de ser atendida. En el mismo sentido, se adiciona un nuevo área de actuación «responsabilidad social empresarial» al conjunto de áreas de actuación atribuidas a este Departamento. Además, se especifica que en el área Política de empleo se incluye todo el subsistema de formación profesional para el empleo, sin perjuicio de las competencias del Departamento de Educación, Universidades e Investigación en relación al aprendizaje permanente de las personas a lo largo de toda la vida.

– Se denomina correctamente a la Sociedad Pública NEIKER Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea, A.B., Instituto Vasco de Investigación y Desarrollo Agrario.

– Se integran en la Dirección de Desarrollo Legislativo y Control Normativo de la Secretaría General de Régimen Jurídico del Departamento de Justicia y Administración Pública las siguientes funciones y áreas de actuación llevadas a cabo por la Dirección de Estudios y Régimen Jurídico de la Viceconsejería de Gabinete del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales: Régimen general de Asociaciones, Fundaciones y Colegios Profesionales.

– Se integran en el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, la Dirección de Gabinete y la Dirección de Servicios Generales, ambas del extinto Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación.

– Xedapen osagarri bat gehitu egiten da, hain zuzen ere maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretua onartu ostean hasitako egituren arrazionalizazio-prozesuaren baitan onartutako langileen berregituratze-prozesuetan dekretu honek eragin ez dezan.

– Azkenik, zenbait aurreikuspen finkatzen dira, batetik, dekretu honek indarra hartzean bidean diren administrazio-espedienteak, baldin eta haren edukiak organikoki eragiten badie, haren banaketa antolamenduzkoarekin eta funtzionalarekin bat ebatziko dira, eta, bestetik, Ekonomia eta Ogasun Sailak burutuko ditu: dekretu honetan ezarritakoa betetzeko beharrezko aurrekontu-egiturak.

Ondorioz, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeko 8.c) artikuluak ematen dizkidan ahalmenen arabera, hauxe

XEDATU DUT:

***Lehenengo artikulua.***– Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen maiatzaren 8ko Lehendakariaren 4/2009 Dekretuko 2. artikuluko f) idatz-zatiak honako idazketa izango du:

«f) Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoa».

***Bigarren artikulua.***– Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen maiatzaren 8ko Lehendakariaren 4/2009 Dekretuko 6. artikuluko 1. paragrafoari i) bis idatz-zatia erantsiko zaio:

«i bis) Meteorologia.»

***Hirugarren artikulua.***– Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen maiatzaren 8ko Lehendakariaren 4/2009 Dekretuko 8. artikuluko 1. paragrafoko ñ) idatz-zatia aldatu egien da eta c) bis idatz-zati berria erantsiko zaio:

«c bis) Prezio-politika.

ñ) Ondarea eta kontratazioa.»

***Laugarren artikulua.***– Ezabatu egiten da 9. artikuluko 1. paragrafoko h) idatz-zatia, zehazki, ondoko araukoa: 4/2009 Dekretua, maiatzaren 8koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena.

***Bosgarren artikulua.***– Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatu

– Se incluye una disposición adicional a fin de que los procesos de reestructuraciones de personal aprobados en el marco del proceso de racionalización de estructuras puesto en práctica tras la aprobación del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, no queden afectados por lo previsto en el presente Decreto.

– Por último, se establecen las previsiones de que, de un lado, los expedientes administrativos en curso a la entrada en vigor de este Decreto y que se encuentren orgánicamente afectados por su contenido, se resolverán de conformidad con la distribución funcional y organizativa derivada del mismo y, de otro, que el Departamento de Economía y Hacienda realizará las operaciones presupuestarias necesarias para dar cumplimiento a lo dispuesto en este Decreto.

Por lo expuesto, en virtud de las facultades que me atribuye el artículo 8.c) de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno,

DISPONGO:

***Artículo primero.***– La letra f) del artículo 2 del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, queda redactada de la siguiente forma:

«f) Industria, Innovación, Comercio y Turismo.»

***Artículo segundo.***– Se añade una nueva letra i) bis al número 1 del artículo 6 del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, con la siguiente redacción:

«i bis) Meteorología.»

***Artículo tercero.***– Se adiciona una nueva letra c) bis y se modifica la letra ñ) del número 1 del artículo 8 del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, que quedan redactadas de la siguiente forma:

« c bis) Política de precios.

ñ) Patrimonio y contratación.»

***Artículo cuarto.***– Se suprime la letra h) del número 1 del artículo 9 del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

***Artículo quinto.***– La letra p) del número 1 del artículo 9 del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehen-

eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen maiatzaren 8ko Lehendakariaren 4/2009 Dekretuko 9. artikuluko 1. paragrafoko p) idatz-zatiak honelako idazketa izango du:

«p) Toki Administrazioaren arloan legeek eta araudiek Jaurlaritzari esleitzen dizkioten egitekoak burutzea. Bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eskumen diren toki araubideko gaiak ebaztea eta horiei buruzko irizpena ematea.»

***Seigarren artikulua.***– Ezabatu egingo da 10. artikuluko 1. paragrafoko j) idatz-zatia, zehazki, ondoko araukoa: 4/2009 Dekretua, maiatzaren 8koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena.

***Zazpigarren artikulua.***– Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen maiatzaren 8ko Lehendakariaren 4/2009 Dekretuko 11. artikuluko 1. paragrafoak eta tituluak honelako idazketa izango dute:

«11. artikulua.– Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila.

1.– Honako egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkio Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailari:»

***Zortzigarren artikulua.***– Ezabatu egingo da 4/2009 Dekretuaren 11. artikuluko 1. paragrafoko i) idatz-zatia (4/2009 Dekretua, maiatzaren 8koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena).

***Bederatzigarren artikulua.***– Aldatu egingo dira 4/2009 Dekretuaren 12. artikuluko 1. paragrafoko b), c) eta d) idatz-zatiak eta c) bis idatz-zatia erantsiko zaio (4/2009 Dekretua, maiatzaren 8koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena). Honelako idazketa izango dute:

«b) Enplegu-politika, enplegurako lanbide-heziketaren azpisistema osoa barne dela, baina Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak pertsonen bizitza osoko ikaskuntza etengabearen arloan duen eskumenari kalterik egin gabe.

c) Gizarte ekonomia: kooperatibak, lan-sozietate anonimoak eta ekonomia solidarioa.

c bis) Enpresen gizarte-erantzukizuna.

d) Gizarteratzearen sustapena.

***Hamargarren artikulua.***– 4/2009 Dekretuaren 14. artikuluaren 2. paragrafoak (4/2009 Dekretua, maiatzaren 8koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia

dakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, queda redactada de la siguiente forma:

«p) Ejercer las funciones administrativas que las Leyes y los reglamentos atribuyen al Gobierno en materia de Administración Local. En particular, el informe y la resolución de asuntos de competencia de la Administración de la Comunidad Autónoma en materia de régimen local.»

***Artículo sexto***.– Se suprime la letra j) del número 1 del artículo 10 del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

***Artículo séptimo***.– El título y el número 1 del artículo 11 del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, quedan redactados de la siguiente forma:

«Artículo 11.– Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo.

1.– Al Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo le corresponden las siguientes funciones y áreas de actuación:»

***Artículo octavo.***– Se suprime la letra i) del número 1 del artículo 11 del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

***Artículo noveno.***– Se modifican las letras b) c) y d) y se adiciona una nueva letra c) bis al número 1 del artículo 12 del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, que quedan redactadas de la siguiente forma:

«b) Política de empleo, incluido todo el subsistema de formación profesional para el empleo, sin perjuicio de las competencias del Departamento de Educación, Universidades e Investigación en relación al aprendizaje permanente de las personas a lo largo de toda la vida.

c) Economía social: cooperativas, sociedades anónimas laborales y economía solidaria.

c bis) Responsabilidad Social Empresarial.

d) Promoción de la inclusión social.»

***Artículo décimo.***– El número 2 del artículo 14 del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamen-

Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena) honelako idazketa izango du:

«2.– Honako sozietate publiko hauek atxikitzen zaizkio sail honi: Neiker Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea AB, Instituto Vasco de Investigación y Desarrollo Agrario; Nekazaritza Garapenerako Institutua AB, Landa Heziketa, Sustapen eta Garapenerako Zentro Integrala Itsasmendikoi SA; Ingurugiro Hobekuntza-Mejora del Medio Ambiente Ingurugiro Hobekuntzarako sozietate publikoa (Ihobe SA) eta Uraren Euskal Agentzia.

***Hamaikagarren artikulua.***– 3. paragrafoa erantsiko zaio 4/2009 Dekretuaren Lehenengo Xedapen Gehigarriari (4/2009 Dekretua, maiatzaren 8koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena). Honelako idazketa izango du paragrafo horrek:

«3.– Jaurlaritzaren Lehendakaritzan sartuta geratuko da Toki Araubidearen Zuzendaritza, baina Toki Administrazioekiko Harremanetarako Zuzendaritza izena hartuta. »

***Hamabigarren artikulua.***– 4/2009 Dekretuaren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 2. paragrafoak (4/2009 Dekretua, maiatzaren 8koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena) honelako idazketa izango du:

«2.– Ekonomia eta Ogasun Sailean Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza sortuko da, Ogasun eta Finantza Sailburuordetzaren barruan. Zuzendaritza berri honi eginkizun eta giza baliabide eta baliabide material hauek atxikiko zaizkio: Ondare Zerbitzuari dagokionez, Ekonomia eta Ogasun Saileko Ogasun eta Finantza Sailburuordetzako Finantza Zuzendaritzan zeudenak; eta Kontratazio Zerbitzuari dagokionez, Justizia eta Herri Administrazio Saileko Administrazio eta Zerbitzu Sailburuordetzako Baliabide Orokorren Zuzendaritzan zeudenak.

***Hamahirugarren artikulua.***– 4/2009 Dekretuaren Hirugarren Xedapen Gehigarriaren 1. paragrafoak (4/2009 Dekretua, maiatzaren 8koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena) honelako idazketa izango du:

«1.– Ondoko organo eta unitateek osatuko dute Justizia eta Herri Administrazio Saila:

a) Desegindako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Saileko Justizia Sailburuordetzaren organoek eta

tos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, queda redactado de la siguiente forma:

«2.– Están adscritas a este Departamento las sociedades públicas: Sociedad Pública Neiker Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea, A.B., Instituto Vasco de Investigación y Desarrollo Agrario; Nekazaritza Garapenerako Institutua, A.B., Centro integral para la Formación y promoción del medio rural Itsasmendikoi, S.A.; la Sociedad Pública de Gestión Ambiental, Ihobe, S.A. Ingurugiro Hobekuntza-Mejora del Medio Ambiente y la Agencia Vasca del Agua.»

***Artículo decimoprimero.***– Se adiciona un nuevo número 3 a la Disposición Adicional Primera del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, que queda redactado de la siguiente forma:

«3.– Se integra en la Presidencia del Gobierno la Dirección de Régimen Local, bajo la denominación de Dirección de Relaciones con las Administraciones Locales.»

***Artículo decimosegundo.***– El número 2 de la Disposición Adicional Segunda del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, queda redactado de la siguiente forma:

«2.– Se crea en el Departamento de Economía y Hacienda la Dirección de Patrimonio y Contratación, que se integra en la Viceconsejería de Hacienda y Finanzas. A esta nueva Dirección se le adscriben las funciones y medios personales y materiales que, en lo que corresponden al Servicio de Patrimonio, estaban integrados en la Dirección de Finanzas de la Viceconsejería de Hacienda y Finanzas del Departamento de Economía y Hacienda, y, en lo que corresponden al Servicio de Contratación, estaban integrados en la Dirección de Recursos Generales de la Viceconsejería de Administración y Servicios del Departamento de Justicia y Administración Pública.»

***Artículo decimotercero.***– El número 1 de la Disposición Adicional Tercera del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, queda redactado de la siguiente forma:

«1.– El Departamento de Justicia y Administración Pública estará formado por:

a) Los órganos y unidades de la Viceconsejería de Justicia del extinto Departamento de Justicia, Empleo

unitateek.

b) Desegindako Jaurlaritzaren Lehendakariordetzako Araubide Juridikoaren Idazkaritza Nagusiko organoek eta unitateek. Salbuespena izango da Toki Araubidearen Zuzendaritza: Jaurlaritzaren Lehendakaritzan sartuko da, baina bere giza-baliabideak eta baliabide materialak Araubide Juridikoaren Idazkaritza Nagusiko Auzibide Zuzendaritzari atxikiko zaizkio.

c) Desegindako Jaurlaritzaren Lehendakariordetzako Administrazioa Eraberritzeko eta Administrazio Elektronikorako Idazkaritza Nagusiaren organoek eta unitateek.

d) Administrazio eta Zerbitzu Sailburuordetzaren eta Funtzio Publikoko Sailburuordetzaren organoek eta unitateek (sailburuordetza biak desegindako Ogasun eta Herri Administraziokoak dira).»

***Hamalaugarren artikulua.***– Ezabatu egingo da 4/2009 Dekretuaren Hirugarren Xedapen Gehigarriaren 2. paragrafoa (4/2009 Dekretua, maiatzaren 8koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena).

***Hamabosgarren artikulua***.– 2. paragrafoa erantsiko zaio 4/2009 Dekretuaren Hirugarren Xedapen Gehigarriari (4/2009 Dekretua, maiatzaren 8koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena); honako idazketa izango du:

«2.– Maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren 9.1 artikuluaren e) idatz-zatian adierazitako egitekoak eta jardun-arloak, eta horiek gauzatzeko dauden giza-baliabideak eta baliabide materialak – egun Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Kabinetearen Sailburuordetzako Azterlanen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritzaren barruan daudenak–, Justizia eta Herri Administrazio Saileko Araubide Juridikoaren Idazkaritza Nagusiaren Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzaren barruan egongo dira».

***Hamaseigarren artikulua***.– Honako idazketa izango du 4/2009 Dekretuaren Zazpigarren Xedapen Gehigarriak (4/2009 Dekretua, maiatzaren 8koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena):

«Honako hauek osatzen dute Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila: desegindako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak; desegindako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Lurralde Antolamendu eta Uren Sailburuordetzako eta Ingurumen Sailburuordetzako organoek eta unitateek; desegindako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saileko Kabinetearen Zuzendaritzak eta Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzak;

y Seguridad Social.

b) Los órganos y unidades de la Secretaría General de Régimen Jurídico de la extinta Vicepresidencia del Gobierno, excepto la Dirección de Régimen Local, que se integra en la Presidencia del Gobierno, si bien sus medios personales y materiales se adscriben a la Dirección de lo Contencioso de la referida Secretaria General de Régimen Jurídico.

c) Los órganos y unidades de la Secretaría General de Modernización y Administración Electrónica de la extinta Vicepresidencia del Gobierno.

d) Los órganos y unidades de la Viceconsejería de Administración y Servicios y de la Viceconsejería de Función Pública, ambos del extinto Departamento de Hacienda y Administración Pública.»

***Artículo decimocuarto.***– Se suprime el número 2 de la Disposición Adicional Tercera del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

***Artículo decimoquinto***.– Se adiciona un nuevo número 2 a la Disposición Adicional Tercera del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, que queda redactado de la siguiente forma:

«2.– Las funciones y áreas de actuación contempladas en el apartado e) del artículo 9.1 del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, así como los medios personales y materiales que para su ejecución se encuentran actualmente integrados en la Dirección de Estudios y Régimen Jurídico de la Viceconsejería de Gabinete del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales, se integrarán en la Dirección de Desarrollo Legislativo y Control Normativo de la Secretaría General de Régimen Jurídico del Departamento de Justicia y Administración Pública.»

***Artículo Decimosexto***.– La Disposición Adicional Séptima del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, queda redactada de la siguiente forma:

«El Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca estará formado por la Dirección de Servicios del extinto Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, por los órganos y unidades de la Viceconsejería de Ordenación del Territorio y Aguas y de la Viceconsejería de Medio Ambiente, ambas del extinto departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, así como por la Dirección de Gabinete y la Dirección de Servicios Generales, ambas

eta desegindako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saileko Nekazaritzaren eta Arrantzaren Garapeneko Sailburuordetzako eta Elikagai Politika eta Industriako Sailburuordetzako organoek eta unitateek.»

XEDAPEN GEHIGARRIA

Indarrean jarraituko dute Sailetako Zerbitzu Zuzendaritzen artean 2009ko uztailaren 29tik aurrerako eraginarekin onartutako langile-berregituratzeek, Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretua onartu ostean hasitako egituren arrazionalizazio-prozesuaren baitan onartutakoek.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Dekretu hau indarrean jartzen denean bideratzen ari diren admnistrazio-espedienteak dekretu horretatik eratorritako egitekoen eta antolamenduaren banaketaren arabera ebatziko dira, baldin eta dekretuaren edukiak organikoki eragiten badie.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa***.– Ekonomia eta Ogasun Sailak Dekretu honetan xedatutakoa betetzeko beharrezkoak diren aurrekontu-eragiketak burutuko ditu.

***Bigarrena***.– Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean hartuko du indarra.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko uztailaren 30ean.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

del extinto Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación, y los órganos y unidades de la Viceconsejería de Desarrollo Agrario y Pesquero y de la Viceconsejería de Política e Industria Alimentaria, ambas del extinto Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación.»

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Se mantienen en vigor las reestructuraciones de personal aprobadas con efectos de 29 de julio de 2009, entre las Direcciones de Servicios de los distintos Departamentos, en el marco del proceso de racionalización de estructuras puesto en práctica tras la aprobación del Decreto 4/2009 de 8 de mayo, del Lehendakari.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Los expedientes administrativos en curso a la entrada en vigor de este Decreto y que se encuentren orgánicamente afectados por su contenido, se resolverán de conformidad con la distribución funcional y organizativa derivada del mismo.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera***.– El Departamento de Economía y Hacienda realizará las operaciones presupuestarias necesarias para dar cumplimiento a lo dispuesto en este Decreto.

***Segunda***.– El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 30 de julio de 2009.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.